# FIREFOX: ANTOLAKETA

## 1. Nabigatzeko barran karpetak sortu




1

Menu nagusian markagailuetara joan eta markagailu guztiak erakusteko botoia zapaldu.




2

Leiho bat irekiko zaizu, ezkerrean zutabe estu bat duena eta eskuinean, berriz, lodiago bat.

Eman botoiarekin ezkerreko zutabean ikusiko duzun “Barra de herramientas” atalean. Hau, Firefox nabigatzaileko azpimenua da, webgune bisitatuenak eskura izan ditzatzun tresna aproposa.




3

Eskuineko zutabean hutsunea dagoen leku batean, xaguaren eskuin botoiari eman eta aukera ezberdinak agertuko zaizkizu.

Atal honetan, egokiena, karpetak sortzea da. Hau da, karpeta nagusi batzuk sortu eta ondoren, Firefox-en nabigatzen zauden bitartean sartu karpeta hauetara webgune konkretuak.

## 2. Markadore bat sortu ala webgune bat gorde:




4

Gogoko dugun webgunean, helbidea idazteko laukian izartxo bat ageri da beti. Batzuetan hutsa dago eta bertan zapalduz gero, urdina ala kolore batean jartzen da.

Hau zapaltzean, leihotxo bat irekitzen da. Webgunearen izena, kokapena eta etiketak laukiak dituena.

Bertan, norberak nahi duen informazioa txerta dezake. Erabaki webguneari zein izen jarriko diozun (gero erraz bilatuko duzuna), zein kokapen eman nahi diozun (beheranzko gezia zapalduta aurrez sortu dituzun karpetak bilatu ahal izango dituzu) eta azkenik, nahi izanez gero, etiketak ere txerta zenitzake.

Bukatu botoiari emanda, gordeta izango duzu webgunea dagokion karpetan.




5

Tresnen barran, beraz, zuk aukeratutako karpetan zapaltzen baduzu, horren barruan gorde dituzun webgunean zerrendan agertuko zaizkizu.

Zapaldu momentu bakoitzean intereseko webgunea eta kito, bertara joango zara.